

XXI. mende hasierako euskal gizartea aztertzea izan da Doktorego Tesiaren helburua. Horretarako, euskal identitatea “*zelan* eraikitzen da” galdetu da gazteek Facebooken dituzten diskurtsoak-praktikak etnografia digitalarekin erantzunez. Dimentsio sozialaren garrantzia zein komunitate eredu anitzaren ideiak berrestez gain, Herri digitala kontzeptua proposatu da muga geografiko eta sinbolikoen baitan eraikitzen den euskal identitatea, komunitatea eta gizartea ulertzeko. Betiere, euskal estatuaren garrantzia azpimarratuz.

Giltza-Hitzak: Euskal identitatea. Herri digitala. Etnografia digitala. Internet. Komunitatea. Euskal estatua.

El objetivo de la Tesis Doctoral es analizar la sociedad vasca de principios del siglo XXI. Para ello, se ha preguntado “cómo se construye” la identidad vasca, respondiendo a los discursos-prácticas de los y las jóvenes en Facebook a través de la etnografía digital. Además de ratificar la importancia de la dimensión social y las ideas de diversos modelos de comunidad, se ha propuesto el concepto de País digital para entender la identidad, comunidad y sociedad vasca construida en base a fronteras tanto geográficas como simbólicas, destacando en todo momento la importancia del Estado vasco.

Palabras Clave: Identidad vasca. País digital. Etnografía digital. Internet. Comunidad. Estado vasco.

Le but de cette Thèse de Doctorat est d'analyser la société basque du début du XXIe siècle. En cherchant à savoir « comment se construit » l'identité basque, en réponse aux discours-pratiques des jeunes sur Facebook à travers l'ethnographie numérique. Outre la ratification de l'importance de la dimension sociale et des idées des différents modèles de communauté, le concept de Pays numérique est proposé pour comprendre l'identité, la communauté et la société basque, construite sur des frontières géographiques et symboliques, tout en mettant l'accent sur l'importance de l'État basque.

Mots-Clés : Identité basque. Pays numérique. Ethnographie numérique. Internet. Communauté. État basque.

# Euskal herritar burujabeon aberria, Euskal estatua da

(The Basque state is the  
homeland of Basque  
sovereign citizens)

**Díaz Bizkarguenaga, Koldo**

Euskal Herriko Unibertsitatea. Gizarte eta Komunikazio  
Zientzien Fakultatea. Ikus-entzunezko komunikazioa eta  
Publizitatea. NOR Ikerketa Taldea  
Sarriena auzoa, z/g. 48940 Leioa  
koldo.diaz@ehu.eus

## 1. Sarrera: “Mendea eta bigundua gurutzatzen diren lekua”

Azken urteetan asko izan dira euskal nazionalismoa, euskal nazioa edota euskal identitatea iker keta-gai izan duten ikerlari edota politikariak, baina gutxi izan dute Sabino Aranaren ekarpenak izan zuen irismena. “*Euzkotarren aberria, Euzkadi da*” esaldiaren bikaintasuna zein honen indarra ikasi genuen Soziologia lizentziaturan Xabier Aierdiren eskutik: *izanarentzat izen* bat asmatu zuen modu honetan subjektua eta lurraldea izendatuz eta, ondorioz, hauek definituz. Duela ehun urte baino gehiago, garaiko euskal gizaratearen kezketatik eta nahietatik abiatuz, errealitate bat sortu eta eraiki zuen Sabino Aranak bere hitzekin. XXI. mende hasieran euskal gizaratea zein testuinguru mundiala aldatu dira eta, horregatik, euskal akademiaren eta politikaren betebeharrak errealitate berria aztertzea, ulertzea eta, ahal bada, Sabino Aranak egin bezala, eraikitzea da. Azken finean, soziologia lizentziaturan ere irakasle izandako Joseba Arregik EAJ-ko kide zenean esan bezala: “*Abertzale ona izatea, Sabino Aranak egin zuena egitea da eta ez esan zuena errepikatzea*”<sup>1</sup> (Arregi 2000).

Artikulu hau saiakera bat da: erronka berriak kokatzeko saiakera bat, garai berri honetan hainbat kontzeptu berridazteko saiakera bat eta, azken finean, errealitate berri bat sortzeko saiakera bat. Helburu hau utopia hutsa da, eta orri hauen bukaeran errealitate berri bat sortuko ez dudala jakin badakidan arren, maiz helburua baino bidea bera da garrantzitsuagoa. Telesforo Monzonek esan bezala, “*Utopikoak egiten diote munduari aurrerazi. Zuek utopikoak ekarriko duzue Euzkadiko askatasuna*”. Beraz, ez dezagun garaipenaren egun handira arte itxaron, honetara hurbildu ahala urruntzen den utopia baita; porrotei, saiakerei, hitz egiteari beldurra kenduz egin dezagun hauei esker gure bidea.

Saia gaitezen. Azken urteotan Sabino Aranak sortutako errealitatea performatu (Butler 2007) egin da edo, beste era batera esanda, izendatutako errealitateak hainbat esanahi izan ditu hasieran definitu nahi zuen errealitatearekin alderatuz ezberdinak diren errealitateak sortuz: hasiera batean sortutako adosta-

---

1. Autorearen itzulpena.

sunak desadostasun bilakatu dira eta batasunaren ostean konfrontazioa etorri da. Ukaezina da euskal gizartearen baitan subjektua, nazioa eta lurraldea izendatzeko eta, ondorioz, definitzeko arazoak daudela. Batetik, subjektuari edo “Nor”-ari dagokionez, besteak beste, euzkotarrak, euskaldunak, basakoak edota nafarrak izendapenak daude eta, bestetik, nazioa eta lurraldeari edo “Non”-ari dagokionez, besteak beste Euzkadi, Euskadi, Euskal Herria edota Nafarroa kokalekuak daude.

Ez dugu ez ereserki ez eta bandera komunik. Eta bata edo beste erabiltzeak ideologia politiko, eta haratago joanda, alderdi politiko batekin lerratzen du euskal herritarra. Gizabanakook errealtatea ulertzeko etiketak hainbeste behar ditugu ezen euskal gizartea etiketa eta ardatz politikoen arabera sailkatu dugula. Jakina da politika boterearen eta interes ezberdinen lehia dela eta logika politiko horrekin euskal herritarrak multzokatuz Herri zein gizarte bezala aurrera egitea oso zail dugu. Soziologiak, ordea, diskurtso sozial edo etnosozilogikotik zein politikotik abstraditzeko aukera eskaintzen du, hobe esanda, eskatzen du.

Ikuspegi akademiko batetatik beharrezkoa eta zilegi da galdetzea zerk batzen duen euskal gizartea, *zerk* egiten duen komunitate eta zerk ematen duen identitatea gizabanako, komunitate, gizarte eta Herri gisa. Eusko Jaurlearitzaren doktorego-aurreko beka baten laguntzaz galdera hauei jarraika hasi nintzen (Díaz 2015b, 2015c): beste ikerlari askok bezala, euskal identitatearen ikerketa-objektuan murgildu nintzen. Erantzun gutxi lortu nituen eta hauen ordez galdera berriekin aurkitu nintzen. Aurreko galderak zilegi izan arren, beste galdera mota batzuk askoz ere interesgarriagoak direla ohartu nintzen: “zer da euskal identitatea” galdetu beharrean, “*zelan* eraikitzen da euskal identitatea” galdetzeak erantzun erabilgarriagoak eskaintzen ditu. Horrela, euskal gizartea batzen duena elementu bakarra izan beharrean, elementu anitzak direla ondorioztatu nuen; komunitatea eta nazioa eredu homogeneo gisa ulertzea baino eredu heterogeneo eta aldakor bezala ulertzeak bide berriak ireki zituen eta, azkenik, euskal gizarteak identitatea jasotzeaz gain irai, manipulatu, banalizatu zein honekin jolastu egiten duela argi geratu zen.

## 2. Ikerketaren diseinua: garai berriak ulertzeko, espazio eta metodologia berriak lantzearen beharra

Egiten dut paso ez dakidalako erantzuten. O sea, da gauza bat hitz egin dudala askotan, jende askok, hasieran nuela nire buruan gauza bat, pues, euskalduna izatea zer izaten ahal zen edo zer sartu diguten edo zer esan didaten. Baina gero jun zait aldatzen eta jun beharrean definitzen joan naiz gero eta duda gehiago izaten, ulertzen? Ordun... buf!

(Eztabaida Taldea 2-ko 1.kidea<sup>2</sup>, 2010)

Galte honek ez zuen euskal identitatearen inguruko erantzunik edo definiziorik eman nahi. Urteetan zehar izandako eztabaida bukæzinari amaiera jarri zion: zergatik erantzun behar ote zuen zer den euskaldun izatea? Nori erantzun behar zion

---

2. Zenbait gaztek haien izena aipatzeko baimena eman zuten arren, beste batzuk ez zuten nahi izan. Lehengo kasuan izena erabiliko da eta bigarren kasuan identifikazio zenbakia. Galte guztiei zein ikerketan parte hartu zuten aditu eta aritu guztiei doakiela nire esker ona.

galdera hori? Zer dela eta eman behar zion inorri bere (nazio) identitatearen inguruko definiziorik?

Euskal identitatearen eraikuntza Interneten, eta zehatzago izanda Facebooken, nolakoa den ezagutzeko komunitatearen diskurtso eta praktikak behatu behar dira. Zaila da zenbatzen duten teknika kuantitatibo edo sailkatzen duten teknika kualitatiboan bidez helburu hau lortzea: komunitatearen eta gizabanakoen praktiken inguruko ikuspegi holistikoa duen hurbilpen etnografikoaren bidez errazagoa da. “Etnografia birtuala” (Hine 2004) espazio onlinean burutzen den etnografia den bitartean, “Etnografia digitala” espazio online eta offlinean egindako etnografia da (Miller 2011) -espazio onlinea eta offlinea aldi berean ematen den garai honetan, “Etnografia” oro “Etnografia digitala” dela esan daiteke eta horregatik “digitala” abizena kentzeko joera dago munduko hainbat unibertsitateetan, Euskal Herrian ia ezezaguna den bitartean.

Facebook kontu pertsonaleko lagunak behatzen hasi nintzen, betiere irizpide etikoak jarraituz, ikerketa bat burutzen ari nintzela azalduz. Etnografia bat burutzeko, derrigorrezko elementua da komunitatea: behaketa (ez) parte hartzailea ezin daiteke egin Internet edota Facebook bezalako espazio hain zabaletan, kide guztiekin aritzeko aukera emango duen talde mugatua behar da. Behaketa garaian elkarrizketa sakon batean ezagututako neska bati esker beharrezkoa den taldea aurkitu nuen. Nahiak, beste 40 gazterekin batera, atzerriko enpresak ezagutzera bideratutako Eusko Jaurlaritzaren beka bati esker atzerrian bizi zela azaldu zidan. Gazte hauek Euskal Herrian burututako kurtsosan zehar egindako harremana ez galtzeko, bekaren inguruko arazoak elkarren artean konpontzeko eta euskal nortasuna mantentzeko Facebook talde pribatu bat sortzea erabaki zuten.

Baimena eskatu nien taldean sartzeko eta haien baimena jaso eta gero, taldea behatzen hasi nintzen: partekatzen eta negoziatzen zituzten nazio identitate erreferente ezberdinak identifikatu nituen eta zertaz, nola eta zein hizkuntzatan hitz egiten zuten ikusi nuen. Ia bi aste igarota, taldean parte hartzen hasi nintzen: haien elkarrizketak jarraitu nituen, berri batzuk hasi nituen, nahi beste galdera egin nituen eta nekizkien galderak erantzun nituen. Azkenik, talde horretako kide aktiboak identifikatu eta hauekin sakoneko elkarrizketak burutu nituen. Bederatzi hilabeteetan lana egin eta gero, taldea utzi nuen, kideak agurtu eta ordura arte idatzitakoa haiekin partekatu nuen.

Metodologia honen gakoa, metodologia beragatik uztean datza: albo mugak argi izanda, etorriko diren pausuak mugatuta ez izatea eta elkarrizketatuei pausu horiek markatzen uztea. Ikerketa eta bizitza elkarren eskutik joan ziren, ikertzaile posiziotik ikertu posiziora igaroz. Ni neu Facebook erabiltzen zuen eta atzerrian zegoen euskal gaztea izanda, neure burua aztertzea erabaki nuen. Ottawan, Oxforden eta Buenos Airesen egindako ikerketa-egonaldietan eguneroko bat idatzi nuen, nire bizipenekin ariketa erreflexiboa eginez eta etnografia (digitala?) “auto etnografia (digitala?)” bilakatu.

### 3. Euskal identitatearen definiziotik, euskal identitatearen erai-kuntzara

*“Jatorrizko orrialdea ote gara,  
ala ikatz-orriaren azpiko orrialdea?  
Bata zein bestea, tarteka?  
Edo anabasa hutsa den kalko beltza,  
behin eta berriro erabilia eta irakurtzezina?  
Imitazioen pilaketa hutsa baino ez,  
kalkoa kalkoaren gainean?”*

(Harkaitz Cano, Twist)

Identitatea esentzia bat bezala ulertu izan da mendeetan zehar. Indibiduoi edota kolektiboari izaera bat ematen dion elementua. Aldaketak sufritzen ez dituen elementua, “Semper Idem” mantentzen dena. Zalantza egoeretan heldu daitekeen ziurtasuna: pentsatu behar gabeko era automatikoan aktibatzen den hitza, definizioa. Hasiara batean azaldu bezala gizartea aldatu egin da azken urteetan eta, noski, euskal identitatea ulertzeko eta sentitzeko erak ere aldatu dira. Jatorri ezezaguna duen hizkuntza edota mendeetan bereizi mantendu den Herria dela ozen aldarrikatu arren, Euskal Herria ez da hain berezia eta, maiz ahazten den arren, tes-tuinguru globalak euskal gizarte zahar eta txiki hau ere zipriztintzen du.

Gizarte bat ulertzeko bere literatura irakurtzea besterik ez zegoela esan zuen Ignacio Mendiola irakasleak Soziologia lizentziaturan. Harkaitz Cano bere protagonisten hausnarketa motz honetatik jarraituz, lehenik eta behin, identitatearen izaera originala edo esentziaren existentzia bera kolokan jartzen duela ikus daiteke: azpiko orrialdea ote gara? Originala baino, kopia ote gara? Bigarrenik, bi posizioak aldi berean habitatzeko aukera kontenplatu du: dikotomiak gainditzen ditu, bata *edo* bestea izatearen beharra gainditzen du. Hirugarrenik, identitatearen izaera bakarra, koherentea eta homogenea kolokan jartzen ditu: anabasa hutsa izan gaitezke, etengabeko aldaketan egoteagatik/egiteagatik irakurtzen ezinezkoa dena eta, beraz, adierazten eta definitzen ezinezkoa dena. Azkenik, identitatearen purutasuna bera jartzen du ezbaian: imitazio bat ei gara, ez gara errealak eta ez gara puruak.

Identitatea, izate huts bat bezala ulertzeaz gain, izate anitz bezala ulertu daiteke. Aitzitik, datozen orrietan “zera” hori zerbait gehiago igoko da: *izatea* gainditu eta *egitean* murgilduz. Horretarako, euskal identitateak plano sozial, soziologiko zein politikoetatik (izan) dituen definizioak aipatuko dira, euskal identitatearen erai-kuntzaren azterketaren garrantzia azpimarratzeko eta, azken hamarkadetan zelan eraiki den gogoratuz, egungo egoeraren azterketari oinarriak jartzeko.

#### 3.1. Euskal identitatearen definizioa

Euskal identitatearen inguruan pentsatzerakoan zein hitz egiterakoan plano politikoa, soziala eta soziologikoa nahasten dira: izan beharko litzatekeena, uste pertsonalean badena (errealitatea ulertu eta sortzeko erabiltzen den ezagutza etnosozilogikoa) eta *gizarteak* uste duena, nahieran aipatzen dira euskal identi-

tateaz mintzatzean. Ikuspegi akademikoak, ordea, ikerketa-objektuarekiko distantzia bat eskatzen du. (Eta ez, ez noa defendatzera akademikook ikuspegi objektibo batetatik egjaren bila gaudenik: egja ere sortzen dugu, errealtatea ere sortzen dugu akademiatik. Horregatik, ikuspegi akademikoak ikerketa-objektuarekiko distantzia eskatzen duela azpimarratu dut eta ez ikerketa-objektutik bereizten gaituela: gizarteaz hirugarren pertsonan hitz egiten dugun arren, gu ikertzaileok, gizartearen parte ere bagara; are gehiago, gure posizio pribilegiatuaz baliatu beharko ginatke gure burua aztertuz gizartea ulertzeko.) Beraz, ikuspegi akademikoak eskatzen eta eskaintzen duen ariketa erreflexibo baten bidez, analitikoki bada ere, aipatu hiru planoak era berezian aztertuko dira hauetan sakontzeko asmoz.

### 3.1.1. Euskal identitatearen definizioaren eraginkortasun politiko eza

Ikuspegi politikoa abiapuntu ezin hobea da. Doktorego Tesian sakondu ahala, euskal identitatearen inguruko hainbat liburu irakurri eta gero eta inguruko Herrien identitateei erreparatuz, galdera argi bat agertu zen: zergatik? Zergatik definitu behar ote dut nik euskal identitatea? Zergatik izan behar du nire urteetako lanaren emaitza hitz edo definizio huts bat? Zergatiak bilatzea, hori bai ariketa politikoa, hori bai ariketa akademikoa. Pertsona moduan ere bizitzan aurrera egiten laguntzen du galdera honek: zergatik? Hori bai, betiere bere neurrian, izan ere, pertsona moduan ezin baitugu etengabe gauzen zergatia kolokan jarri: egunero esnatu eta gauzarik jakinena ere kolokan jarriko bagenu akabo, adibidez, gure bikote-harremana, gure lana eta gure elikadura. Muturrera joanda, beraz, begi-bistakoa da, batetik, hiru planoak (politikoa, soziala eta soziologikoa) elkarrekin gertatzen direla eta, bestetik, bizitzeko galderak, erantzunak eta jakintzat emandako errealtateak behar direla.

Pentsa dezagun momentu batez: zer da espainiar identitatea? Zer da espainiarra izatea? Zein da espainiar identitatearen definizioa? Hainbat hitz datozkigu burura, ezta? Zezenak, erregea, futbola (“la roja”), yosoyespañolespañolespañol, zapalkuntza, krisia, Gran Hermano – Sálvame - Bertín Osborne. Nago, hitz guzti hauek Nazio baten “branding”-arekin (Jauregizuria 2014) edo, beste era batera esanda, espainiar markarekin lotuta daudela baina ez espainiar identitatearen definizio soziologikoarekin. Eta hala ere, definizio bat izan ez arren, espainiar eta frantziar estatuek haien herrien identitateak objektibatzeke gai dira. Estaturik gabeko nazio bateko autorea den Álgvar Perisek ondo baino hobeto azaltzen du honen zergatia:

Son los Estados-nación que podemos considerar débiles y las naciones sin estado los que más se (pre)ocupan de estas cuestiones. Por el contrario, los Estados-nación occidentales, más estables y con democracias asentadas, no se dan por aludidos y pasan de largo de estos temas (...) los ciudadanos de ese Estado-nación consolidado no se reconocen como nacionalistas, sino como patriotas (...) Para ello pusieron en marcha un imponente aparato institucional que consiguió que discursos marcadamente nacionalistas pasaran por no serlo (...) a la larga, (consiguen) ‘naturalizar’ su nacionalismo y ‘objetivarlo’ con la intención de que éste parezca ‘normal’ e inevitable a los ciudadanos.

(Peris 2008:1).

Estatua, hor dago erantzuna. Zergatik definitu behar da euskal identitatea? Euskal estaturik ez dagoelako. Euskal estatu batetako ikertzailea izango banintz euskal identitatea zer den galdetzeak ez luke zentzurik izango, jakintzat emango nuke nire sozializazio prozesuan hain garrantzitsua eta zentrala izan den estatua-ren esanahi sortzaileari esker. Ez nuke nire nazio identitatea kuestionatuko, ez behintzat “zer da” galdera formulatuz eta ez behintzat definizio bat bilatuz: honen eraikuntzan eta normalizazioan zentratuko nintzateke. Litekeena da beste era baten ikerketa-objektuekiko erakarpena izatea.

Estatuak jakintzat ematen du identitatea. Estatuaren garrantziaren adibide argia atzeritarrek espainiar eta frantziar estatuetan gaintitu beharreko azterketa da: estatuak eskaintzen dituen mekanismo legal eta instituzionalak baliatuz, nazio-identitatea objektibatzen gai dira. Beraz, nazio-identitatea herritartasunarekin estuki lotuta dago eta, horregatik, estatua duten ikertzaileen pare jarritz, euskalduntasunari soilik erreferentzia egiten dion “euskalduna” kontzeptua erabili beharrean, “euzkotar” hitzaren ildotik, identitate anitz (generoa, langile-klasea, posizio soziala, adina...) kontenplatu dituen “euskal herritarra” kontzeptua erabiltzea egokiagoa da. Euskal herritar gisa ez dut babestuko nauen euskal estatu bat. Ados. Baina euskal ikertzaile gisa ez dut kanpotik planteatutako ikerketa-galdera bat erantzun behar, ez diot definizio soziologiko bat eman behar hori berrori egiteko gai ez den estatu bati (espainiar estatua erantzuten gai ez den galdera ez dut nik erantzungo Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako ikerketa batekin) eta, batez ere, euskal ikertzaile gisa, ikuspegi akademikoak eskatzen duen distantzia dela medio, euskal estatuko herritarra izango banintz bezala aritzeko aukera dut estatua duten ikertzaileek formulatzen eta erantzuten dituzten galderak eginez.

Beraz, teoria orokorrak euskal identitatearen gaian kokatzeko beharra dago, hauen artean, Ernesto Laclairen (2005) “adierazle hutsa” kontzeptua bereziki azpimarragarria delarik. Espainiar eta frantziar estatuak naturalizazio eta normalizazio prozesuei esker erantzunak eta ziurtasunak ematen dituzten bitartean, euskal estatu ezak euskal identitatearen esanahia galtzeak eragin du. Hasiarian esan bezala, “euskal” gizartea aipatzean ez dago argi zein herri, lurralde edota bandera den eta, okerragoa dena, hauek azaltzean euskal herritarren arteko polarizazioa, talka eta eztabaida sortzen da. Euskal identitatearen adierazle hutsa denboran zehar esanahi eta definizio anitzez betetzean eta erantzun egokirik ez duen galdera bat (“Zer da?”) kontuan hartzean, euskal identitateak politikoki indarra galtzea eragin du. Garaia da ikuspegi aldatu eta beste modu batera pentsatu eta ekiteko: subalternitate egoerari etekina ateratzeko. Galdera itzuli eta lasai onartu: bai, “Euzkadi” Sabino Aranaren asmakizun bat izan zen, Santi Leonék (2008) *Euskal Herria imaginario baten alde* liburuan ondo baino hobeto ezartzen duen ikuspegi jarraituz. Bai, “euskal” imaginarioa da, asmatutakoa da... eta Espainia – Hispania – estatu espainola? Betidanik, naturalki, objektiboki existitu den eta mapetan bat, bakarra eta bera, “Semper Idem” mantendu den herria al da?



### 3.1.2. Euskal identitatearen definizio sozial anitzak

Aurretiaz aipatutako ideiak jarraituz, euskal estatu ezak euskal identitatea sozialki kuestionatzea eragin du. Baina nazio-identitatea kuestionatzen duen gizartea izateak ez du esan nahi estatudun gizarteetako nazio-identitateekin alderatuz euskal identitatea indar gutxiago duenik. Gabriel Gattik (2007) burututako Doktorego Tesiaren izenburuari *-Identidades débiles: una propuesta teórica aplicada al estudio de la identidad en el País Vasco-* kontra eginez, estatu gabeko nazioa izateak ez du esan nahi nazio-identitatea ahula denik, ez behintzat gizarte horrentzat, ez behintzat herritar horientzat eta ez behintzat historia luzea bezain gatazkatsua duen Herriarentzat. Ezberdintasuna perspektiban dago: espainolez pentsatutako – garatutako – idatzitako Doktorego Tesiaren espainiar perspektiba batetatik, honekin alderatuz, euskal identitatea ahula izateaz gain periferikoa ere izango da.

Estatudun zein estatu gabeko nazio-identitateak, biak ala biak, ez dira objektiboak ez eta berez indartsuak edo ahulak; biak ala biak, kontingenteak, erai-kiak eta aldakorrek dira eta, batez ere, nazio-identitate bat ulertu eta aztertu ahal izateko mundu-ikuskera horretatik ekin behar zaio azterketari eta ez kanpo ikerketa-galderak jarraituz. Euskal identitatearen kasu zehatzean, hau sozialki zein kulturalki objektibatzen tresna instituzionala izan ezean, hamaika definizio sozial izan ditu. Definizio sozial anitz hauek edo, beste era batera esanda, denboran iraunkorra izan den definizio bat eta bakar bat ez izateak honen existentzia ezaren froga gisa erabili izan da espainiar estatutik: bai, bere nazio-identitatea definitzeko gai ez den estatu horretatik, hain zuzen ere. Baina gaur egungo identitatearen inguruko teoria orokorrek kontzeptu honen esentzia eta definitzeko gaitasuna kolokan jartzen dute. Harkaitz Canoren hasierako aipua gogoratuz, identitatea anabasa da: heterogeneoa, koherentziarik izan behar ez duena eta izaera anitzekoa.

Euskal gizartean, beraz, euskal identitatea definitzeko, ulertzeko, sentitzeko eta eraikitzeko modu anitz daude. Identitate erreferente asko eta ezberdinak dituen nazio-identitatea da euskal gizartearena: besteak beste, erreferente kultural, sozial, historiko edota politikoen arabera ulertzen eta eraikitzen da euskal identitatea gaur egun. Azpimarratzekoa da Erramun Baxokek (2006) euskal kultura eta nortasunaren inguruan zuzendutako lana, zeinetan XXI. mende hasierako euskal gizartean nazio-identitatearen erreferente sozialek politikoak baino garrantzi gehiago dutela azpimarratzen den. Horrela, beste garai batzuetan euskal herritarrek euskal identitatea nagusiki ideologia edota alderdi politiko zehatz baten arabera ulertzen eta eraikitzen bazuten ere, gaur egungo gizartean nazio-identitate erreferente hauek sozialagoak eta kulturalagoak diren beste batzuegatik ordezkatuak direla esan daiteke. Berriro ere, teoria makroek bere lekua dute euskal gizartean, proposamen hau Michael Billigek (1995) landutako “nacionalismo banala” kontzeptuarekin erraz ezkondu baitaiteke.

Erreferente hauen indar-korrelazioa albo batera utzita, euskal identitatea ulertzeko aniztasun honek (anabasa, zentzurik onenean), euskal komunitatea eta euskal identitatea beste era batera ulertzeko beharra agerian uzten du. Alde batetik, nazio-identitatearen definizio zein erreferente bakar baten ikuspuntu akademikotik, Ander Gurruchagak (1990) “dosel sakratu” baten inguruan antolatzen zen gizarte gisa irudikatu zuen euskal komunitatea: gizarte modernoetako komunita-

teen eredua jarraituz, totem bakar baten inguruan antolatzen zen euskal gizartea, bere ustez. Beste alde batetik, aipatu erantzun sozial anitzei erreparatuz, Joxe Azurmendi (1992) bezalako beste autore batzuek Euskal Herria herri zein komunitate gisa totem baten inguruan antolatu beharrean, erreferente ugariaren baitan oinarritutako taldetasun eredua identifikatu zuten: Euskal Herriaren komunitatearen iruditegia, komunitate beraren baitako kolektibo bateko zein besteko kide eginez eraikitzen zela landu zuten.

Euskal identitatearen definizio sozial anitzek dikotomiak gaudituko dituen ikuspegi konplexuago bat eskatzen dutela agerian geratzen da aipatu autoreari esker. Euskal identitatea ikuspegi sozial batetik ez da elementu bat *edo* bestea: ez da euskaraz hitz egitea *edo* abertzalea izatea, alegia. Ikuspegi baztertzailer hori alde batera utzi beharra dago euskal gizartea ulertu ahal izateko eta, honen ordean, ikuspegi integratzaile bat aplikatu beharra dago: bata eta bestea eraikitzeo aukera emango duena, besteak beste, euskal identitatea jaioterriaren bidez definitzen duen euskal herritar bat eta euskal identitatea futbol talde bati esker identifikatzen duen beste euskal herritar bat ulertuko dituen. Aurreko azpi-atalean ikuspegi politiko batetatik perspektiba aldatzea aldarrikatzen nuen bezala (hau da, lasai asko onartzea hau herri asmatua dela), ikuspegi sozial batetatik ezberdin pentsatzen duena onartzea aldarrikatzen dut. “*Zenbat buru, hainbat aburu*” eta denak euskal identitatearen onuran.

Bukatzeko, euskal identitatea sozialki definitzeko modu guztien artean, badago bat bereziki interesgarria dena: euskal identitatea definitu nahi ez duen euskal herritarrena. Euskal identitatearen ikerketarekin hasi eta honen definizioaren behararekin aurkitzean “*zergatik*” galdera agertu zen baina aurretiaz aipatutako neskak, hausnarketa interesgarriago bat eginez, “*zertarako*” galdetu zion bere buruari. Zergatik? Euskal estaturik ez dagoelako. Zertarako? Denbora galtzeko eta bestelako galdera askoz ere interesgarriagotan ez murgiltzeko. Gainera, euskal identitatea sozialki ez definitzearen joera hau geroz eta egonkortuago dagoela azaltzen du CEI Ceko lan batek (2005), zeinen arabera euskal identitatea ere, estaturik ez duen nazio-identitateen ildotik, egunerokotasuneko bizitzan praktika eta diskurtso sozialen bidez eraiki eta bizi den identitatea da. Hau da, plano sozial batetik hau erantzunda dagoela uste dute geroz eta euskal herritar gehiago eta, horregatik, honen definizioa kuestionatu beharrean, jakintzat ematen dute.

### 3.1.3. Euskal identitatearen definizio soziologikoaren ezintasuna

Lehenik eta behin, ikuspegi soziologiko batetatik eta estatu ezaren argudiotik haratago joanda, euskal identitateak hainbeste definizio sozial zergatik jaso dituen galdetu beharra dago. Akademiak soilik errealitatea deskribatzen duela edota egia deskubritzen duela pentsatze hutsetik haratago joanda, akademiak ere errealitatea eraikitzen duela, bere hitz, definizio eta diskurtsoekin performatzen (Butler, 2007) duela eta, ondorioz, egia ezartzen duela esan daiteke.

Honen adibide argia euskal identitate sentimendua neurtzeko erabiltzen diren inkestak dira. Euskal Autonomi Erkidegoko zein Nafarroako inkestetan “*euskaldun*” (ez baitira ari herritartasun batez, baizik eta sentimendu batez) eta “*espainol*” izateko aukera ematen dute, eta hauetaz gain, “*euskalduna baino*

españolagoa” eta “espainola baino euskaldunagoa” aukerak. Inkesta hauek ikusita, lehenik eta behin, kolokan jarri beharra dago identitate bat neurtu daitekeenaren ideia, egitekotan, identitatea ulertu, sentitu eta eraikiko da baina identitatea nekez neurtuko da sentimendu-kilogramo edo sentimendu-kilometro balitz bezala. Bigarrenik, euskal identitatea aztertzeko ikuspegi kuantitatibo bat aplikatzekotan eta hau neurtzekotan, erantzunaren aukera posibleak euskal perspektiba batetatik sortu beharko lirateke: asko dira euskal gizartean dauden nazio-identitateak (adibidez, errumaniarra, senegaldarra, kolonbiarra) eta, beraz, aukera horiek ere kontenplatu behar dira eta ez soilik espainiar identitatea (eta, lurraldetasunaren ikuspegi batetatik, zer esanik ez frantziar identitatea). Hirugarrenik, ikuspegi soziologikoa albo batera utzi eta psikologo batengana jo beharko litzateke, izan ere, bipolarrak diren herritarrak omen daude inkesta hauen arabera: aldi berean bi identitate izan badituzten herritarrak, hain zuzen ere. Arrazoi honengatik izango da ere soziologikoki euskal identitatea *zer den* (edo inkesta hauen arabera, zenbat pisatzen duen edo zenbat neurtzen duen) galdetzea baino, *zelan eraikitzen den* galdetzeak askoz ere erantzun mamitsuagoak ematen dituela.

Euskal identitateak sozialki hamaika definizio izateak, beraz, euskal akademiak hainbestetan ikertu eta beste hainbestetan eraiki – aldatu – performatu – nahastu duelako izan daiteke. Baina, honek, zuzenean beste galdera bat sortzen du: berriro ere euskal estatu ezaren arrazoa gaindituz eta barneko motibazio-iturria izatearen erantzun jakina alde batera utziz, zergatik aztertu du etengabe euskal akademiak euskal identitatea? Estatu espainoleko akademiatik behin eta berriz euskal identitatea zer den definitzea eskatu dutelako izan daitekeela esan dezaket. Federación Española de Sociología-k 2010. urtean Iruñean ospatu zuen kongresuan euskal identitatea, gazte koadrilak eta Bilboko alde zaharraren inguruko ikerketa (2009) aurkeztu nuen egunean, nik neuk ezagutu nuen euskal identitatea “existitzen dela” frogatzeko definizio bat ematearen beharra. Ikertzaile eta irakasle espainolek erantzun hori jaso gabe, euskal identitatea besteengatik zerk bereizten duen eta euskal identitatea zer den definitu gabe, ikerketa hutsala zela kritikatu zuten koadrilaren gizarte-harreman eta hiriaren espazioaren ideiak kontutan hartu gabe. Saioko dinamizatzailearen azken hitzak buruan iltzatuak geratu zaizkit ordutik: “*en España no hay partidos políticos nacionalistas*”. Alegia, aurretiaz aipatu bezala, estatudun herrietako pertsonak herritarrak dira eta estatu gabekook, ordea, nazionalista edo abertzaleak.

Galdera hauen aurrean eta euskal identitatea indartzeko eta defendatzeko behar honen aurrean, euskal gizartean historikoki hainbat erantzun eta definizio sortu dira *zer da euskal identitatea* erantzuteko asmoz. Horrela, garaia egokituz eta garaiko gizartearen azterketa zorrotzak eginda, erantzunak moldatzen joan dira urteetan zehar. Inguruak horrela eskatuta euskal definizioa beharrezkoa izanik, honen esentzia bilatuz eta identifikatuz, euskal historian eta ezaugarri komun bereizitasunean oinarritzen ziren hainbat ikerketa daude. Jose Miguel Barandiaranen (1974) ikerketa aitzindari eta iraultzaileetan, izate euskaldunaren adierazle natural, bereizi eta bereziak aztertzen dira perspektiba etniko batetaik.

XIX. mendearen bukaerako industrializazio garaiko euskal gizartearen immigrazioarekin (batez ere espainola) nahastuz joan zen eta modu honetan dimentsio politiko batetik Sabino Aranak “*Euzkotarren aberria, Euzkadi da*” ideia plazaratu

zuen. Conversik (1997) aztertzen duen moduan, lantokietan nazio-identitate bantentzat beharrezkoa den *Gu*-a (euskal herritarrak) eta *Haiek*-a (euskal herritarrak ez zirenak eta, batez ere, espainolak zirenak) eraikitzen ziren. Errealitate sozial berri honen aurrean, Amezagak (1995) bere Doktorego Tesian azaltzen duen moduan, ezkerreko ikuspegi abertzale batetik euskal herritarra “*Euskal Herrian bizi eta lan*” egiten zuen pertsona bezala definitu zen. Beste alde batetik, Euskal Herriko emigratutako biztanleek etnia, jatorria eta bizi-lan lekuaren definizioak kolokan jarri zituzten (Douglass 1990, 2006; Oiarzabal and Oiarzabal 2005; Totoricagüena 1999, 2003, 2004, 2005). Azkenik, historian zehar euskal identitatearen definizio gisa erabili den euskara aipatu beharra dago, izan ere, Amezagak (1995) azaldu bezala, Campionen (1985) garaitik garrantzi berezia izan duen azalpena izan baita euskal identitatea definitzerako orduan.

Gaur egungo definizio sozial anitzek zein teoria soziologiko makroek demostratu bezala, euskal identitatearen definizio soziologiko bat eta bakarra plazaratzea ez da posible (izan). Ikerketa-galderek eta metodologiak duten garrantzia ikusita, garaiari egokitutako ekarpen mamitsu hauek ez dute barnetik zein kanpotik dimentsio akademiko, sozial zein instituzionaletatik galdetu den *zer da* euskal identitatearen erantzuna topatu. Maila teoriko orokor batean, ikerketa-galdera aldatzearen beharra aldarrikatzen dute hainbat teorilarik, hauen artean identitatea *zelan eraikitzen* den azaltzea helburu duen Judith Butlerren (2002, 2007) ekarpena dagoelarik. Praktikak, diskurtsoak, praktikatutako diskurtsoak eta diskurtso bilakatutako praktikak identitatearen eraikuntzaren ikerketaren ardatza dira, baina baita ere, gorputzak berak: “*la performatividad no es un acto único, sino una repetición y un ritual que logra su efecto mediante su naturalización en el contexto de un cuerpo*”. (2007: 15). Modu honetan, aurretiaz aipatutako ustezko bipolaritatea ulergarria da: subjektu berdin batek identitate anitz eraikitzeaz gain, identitate beraren baitan praktika ezberdinak izan baititzake. Betiere, identitatea ulertu eta aztertzerako orduan *zer da* ikerketa-galderatik, *zelan eraikitzen* den ikerketa-galderara mugitzen bada analisiaren ardatza eta identitatea *izatea* baino *egitea* bezala tratatzen baldin bada. Era berean, autore hau jarraituz eta Harkaitz Canoren hasierako aipura bueltatuz, sozialki originalik ez duen identitate kopia asko eraikitzen direla esan daiteke. Beste era batera esanda, eskuratu ezin daitekeen nukleo edo esentzia baten arabera, identitateak, ezin dira soziologikoki definitu nahiz eta sozialki hamaika definizio izan. Bere hitzetan:

En otras palabras, actos, gestos y deseo crean el efecto de un núcleo interno o sustancia, pero lo hacen en la superficie del cuerpo, mediante el juego de ausencias significantes que evocan, pero nunca revelan, el principio organizador de la identidad como una causa. Dichos actos, gestos y realizaciones -por lo general interpretados- son performativos en el sentido de que la esencia o la identidad que pretenden afirmar son invenciones fabricadas y preservadas mediante signos corpóreos y otros medios discursivos.

(2007: 266)

Identitate kontzeptua kritikatzeko, ordea, identitatea behar da, honen arabera pentsatzen baita: ezagutzen ez diren posiziotik ezin baita pentsatu. Beraz, nola hitz egin izendatu ezin daitekeen horretaz? Nola egin euskal identitatearen inguruko Doktorego Tesia ikerketa-objektua definitu ezin bada? Hauek definitu ezin

daitezkeen arren, definizio analitiko bat behar da ikerketan aurrera segitzeko, Hallek (2003) “*identidad bajo borradura*” edo *taxatu azpiko identitatea* deitu zuena. Identitate jakin baten eraikuntza praktikak eta diskurtsoak aztertzeko, hau zelan ulertzen den azaldu beharra dago: ikerketan aurrera egiten lagunduko duen definizio analitiko bat behar da. Baina definizio honen asmoa ez da identitate kolektibo bat soziologikoki *zer den* erantzutea edota ezinezkoa izango litzatekeen esangura soziologikoz betetzea (Butler 2002, 2007), honen abiapuntu bat ezartzea baizik. Beraz, identitatearen definizio analitiko bat proposatuko da hasieran eta bukaeran hau zirriboratu edo ezabatu egingo da identitatea *identitate* bilakatuz, hau bera guztiz ahaztu gabe; identitatea definituko da, baina definizio ez osoa dela jakinda eta *identitatea* dela onartuz; identitatea *zer den* esango da, baina halakoa ez zela eta etorkizunean ere izango ez dela jakinik, hau *identitatea* baita.

## 3.2. Euskal identitatearen eraikuntzaren azterketaren garrantzia

### 3.1.2. Zelan eraikitzen da euskal identitatea: era holistikoan planteatu beharreko ikerketa-galdera

Maila soziologiko makro batetatik (ikerketa-galdera aldatzea proposatzen duten teoriak jarraituz), maila soziologiko mikro batetatik (*zer da* euskal identitatea ikerketa-galderaren erantzun komun bat ezartzea lortu ezin delako), maila politiko batetatik (Herri zein gizarte gisa aurrera egiteko eraginkorra ez delako) zein maila sozial batetatik (geroz eta euskal herritar gehiagok euskal identitatea barneratuta dutenez hau etengabe kuestionatu ordez bizi eta eraiki nahi dutelako), euskal identitatea aztertzeko orduan formulatu beharreko ikerketa-galdera birpentsatu beharra dago.

Egonkorra den esentzia bat esku artean izateak, aldakorra den eraikuntza batek baino ziurtasun gehiago ematen ditu. Ikuspegi honen ildotik eta azken hamarkadetakako euskal identitatearen garapena aztertu ostean, Gabriel Gatti eta Iñaki Martínez de Albénizek (2006) identitate kontzeptua plano teoriko batetatik ikertu nahian hurrengo planteatzen dute: “*Es ese hacer lo que constituye el ser y que el cómo (cómo se hace y produce la identidad) es el qué (la identidad misma)*” (2006:158). Horrela, euskal identitatearen esentzia, euskal identitatea eraikitzen duen praktika multzoa dela proposatzen dute eta ekarpen honen bidez, ia nahigabean, berriz ere hasierako *zer da euskal identitatea* ikerketa-galderara bueltatzen dira.

Usteko ikuspegi kontsruktionista batetatik praktika sozialak identitatearen definizioa direla baieztatzean, ikuspegi esentzialista batera bueltatuko litzateke hari teorikoa. Soziologia eta etnosozologiaren arteko tentsioa nabaria da proposamen honetan: gizartearen diskurtso eta praktikak ezin daitezke definizio soziologiko bezala ulertu (soziologia eta etnosoziojologia banatu beharra baitago), eta gizarteak egin, esan, esaten egiten duena eta egiten esaten duen horretatik harago joan beharra dago. Lotuak dauden arren, plano soziologiko batetatik, *zelan eraikitzen da* identitatea eta *zer da* identitatea galderak bereizi beharra daude: “originalik gabeko kopia” eta “adierazle hutsaren” ideien arabera, soziologiatik identitatea *zelan eraikitzen da* erantzun baitaiteke soilik. Hau egin ahal izateko, ikerketa-galdera hau era holistikoan planteatu beharra dago honen hari teorikoa bukaera arte jarraituz ikerketa-kasu zehatz baten azterketaren bidez.

### 3.2.2. Zelan eraikitzen da euskal identitatea: XX. mendeari begirada bat

Euskal identitatearen eraikuntza XX. mendean nolakoa izan zen ulertu ahal izateko bi autore izango dira ardatz teorikoa. Alfonso Pérez-Agotek (1984) azken hamar kadetako euskal identitatearen (hau identitate politiko gisa ulertuz) garapen sozialen faseak aztertzen ditu, gerora, Iñaki Martínez de Albénizek (2003) Doktorego Tesian bere egin eta izendatu zituenak. Modu honetan, autoreek Francoren garaitik hasi eta politikaren instituzionalizazio garaian amaituko den euskal identitatearen garapenaren bilakaeraren hausnarketa egiten dute.

Lehenik eta behin, Iñaki Martínez de Albénizek Alfonso Pérez-Agote (1984) oinarri hartuz, frankismoa, “*politikarik gabeko gizartearen*” (2003:253) garaia bezala izendatzen du. Ekarpen honen bidez sistema frankistak bultzaturiko erreprezioak gai politikoen jarduera esfera publikotik (kalea eta plazetatik) baztertuz, espazio pribatua politika egiteko esparru nagusi bilakatu zuela azaltzen da. Hori dela eta, besteak beste, familia eta koadrilak eskaintzen zuten babes eta konfiantzagatik espazio pribatu hauek euskal identitatea eraikitzeke espazio pribilegiatuak ziren. Espazio hauetan izaten ziren elkarrizketak salatarietatik salbu mantentzeko, izan ere, hor aurkitzen ziren lagun eta familiako kideen bitartez politikan lehen urratsak ematen ohi ziren. Era berean, esparru pribatuan gertatzen ari ziren harreman politiko hauen bitartez, biztanleak aktibista ere baziren: espazio publikoa berreskuratzeko helburuarekin, besteak beste, ikurrinak zintzilikatu edota kaleetan morgoketak egiten zituzten.

Espazio pribatutik sortzen ziren estrategien bitartez espazio publikoaren berreskuratze honek, bigarren fase politiko bat bideratu zuela azaltzen dute autoreek: “*espazio publikoaren agerpena*” (2003:253). Aipatu ekintzek eta lantokietan edota ikastetxeetan egindako borrokek sistema politikoaren pixkanakako normalizazioa bideratu zuten, egunerokotasuneko praktiken bitartez euskal identitatea eraikiz. Franco hil ostean hasi zen politikaren trantsizioa politika beraren instituzionalizazioan amaitu zen, dimentsio politiko eta sozialaren arteko bereizketa nabarmendu zelarik. Alderdi politikoen agerpenak jarduera politikoa bide instituzionalen bidez kudeatzera eramanez, esfera sozialeko praktikak agertu berri zen esfera “politikora” mugatuz. Bi esparru hauen artean erabateko banaketa eman ez bazen ere, politikaren esparru berri honen agerpenak ordura arte euskal identitatearen eraikuntza sozialean garrantzi handia izan zuten zenbait harreman-espazio (familia edo koadrila kasu) bigarren plano batera pasarazi zituen. Azken fase hau, “*gizarte gabeko politika*” (2003:254) bezala izendatzen du Iñaki Martínez de Albénizek, bere hitzetan: “*En suma, la institucionalización política despolitiza la vida social rutinizando la acción reivindicativa, destruyendo marcos sociales de socialización política*” (2003: 263).

### 3.2.3. Zelan eraikitzen da euskal identitatea: “Nork – Nori – Non”

Euskal gizartearen errealitate sozial berriek eta identitatea ulertzeko modu berriek, euskal identitatea aztertzeko kontzeptu dinamikoa eta aldakor bat eskatzen dute. Euskal identitatea eraikitzeke era anitzak, erreflexiboak, erlazionalak eta testuinguruaren arabera direla kontuan izanda, “Nork – Nori – Non” hitz-jokoa lagungarria da.

Lehenik eta behin, dimentsio erreflexiboa kontuan izanik (*Nork*) eta Stuart Hallen (1998) “new ethnicities” edo etnizitate berriak kontzeptua jarraituz, herritarren eguneroko bizitzan eragina duten ondare kultural eta historikoak azpimarratu behar dira. Erakunde politikoek ere bere biziko garrantzia dute pertsona baten sozializazio prozesu honetan, izan ere, espainiar eta frantziar estatuen legeak dira media, adibidez, euskal identitatearen erreferente nagusia den euskarak (Urta 1989, 2012) interpretazio ezberdinak izango ditu euskal herritarren jatorriaren arabera (Toricagüena eta Urrutia 2008): euskal herritar batzuentzat hizkuntza ofiziala da, beste batzuentzat ez da eta beste hainbestek ezin dute era erraz batean ikastolan ikasi. Legeek, eta kasu honetan gainera euskal legeak ez direnak, euskararen ezagutza baldintzatzen dute eta, ondorioz, euskara erabiltzeko zein euskal identitatea eraikitzeko moduak baldintzatu ere.

Ikuspegi estruktural batetatik sozialera igaroz, nazio-identitateaz gaindi euskal herritarrek dituzten beste identitateak kontuan izan behar dira: generoa edo adina bezalako identitateak ere eguneroko bizitzan eraikitzen dira. Judith Butlerren (2007) ildotik, momentu bereko identitate eraikuntza aniztasunaren arabera, euskal herritarrak momentuaren (*Non*) arabera identitate zehatz bat modu jakin batean eraikiko du. Euskal identitatea ez du zertan izan behar beti eta uneoro euskal gizarteko biztanleek eraikiko duten identitatea, izan ere, aipatu “euskal herritarra” kontzeptua gogoan hartuz eta identitate aniztasuna kontenplatuz, euskalduntasuna modu isolatuan ematen ez dela ikusi daiteke: euskaldunak, betiere, genero, posizio sozial, egoera laboral, adin zein jatorri bat izango baitu.

Hirugarrenik, erlazionaltasuna kontuan izanik, identitatea *Norekin* eraikitzen den kontuan izan beharra dago euskal identitatea aztertzerakoan. Euskal herritarrak (*Nork*), parean duen pertsonaren arabera (*Norekin*) eta testuinguruaren arabera (*Non*) euskal identitatea modu zehatz batean eraikiko du. Ikerketan parte hartu zuen neska honek azaldu bezala, erantzun egokirik ez duen galdera baten aurrean beste identitate bat aurkeztea, irudikatzea eta, ondorioz, eraikitzea hautatzen du maiz:

Es que ez dut ez gogorik, ez... pertsona bakoitzari azaldu behar badiozu nongoa zaren! Badago jendea igual a saco doana eta hoiekin ya denbora galtzen duzu. (...) Jo! Zenbat aldiz esan dut “Ni Islandiakoa naiz” askoz errezago! “Nongoa? Islandia. Ah? Ah! Ala toma!” (barreak). Zer dakizu Islandiari buruz? Ez dakizu ezta hizkuntza! Listo! Es que ya kokoteraino (...) (barreak) Orduan dices “Islandiakoa naiz!” (barreak) Asi que beitu, Islandiako naiz eta listo. “Ah, bonito continente! Baietz eh!”.

(Nahia, 2011ko irailaren 28a)

#### 4. Euskal identitatearen eraikuntza interneten

Oxforden, Bartzelonan edota Buenos Airesen egindako ikerketa-egonaldietan eza-gutu bezala, Internet ikerketa-gai gisa kontuan hartzen da atzerriko hainbat unibertsitateetan: aspektu sozial, ekonomiko, politiko zein juridikoetatik Internetek sortutako errealitate berriak ikertzen dituzten ikerketa-talde egonkortuak daude. Tokian-tokiko gobernuak diruz lagunduta, unibertsitateek ikerketa ezberdinak ga-

ratzen dituzte gizartea ulertzeko, ezagutzeko eta hobetzeko asmoz. Euskal akademia, tamalez, egoera horretatik urrun dago. Gai honen inguruan ez da apenas eza-gutzarik sortzen eta, beraz, euskal akademian zein gizartean Interneti buruz dagoen jakituria atzerritik berandu heldutako oihartzuna (zaharkituta geratu diren kontzeptuen forman) eta diskurtso etnosoziologikotik ikertu gabe sortzen den diskurtsoa da.

#### 4.1. Internet ikerketa-espazio gisa euskal akademiara ekarritz

“Interneten inork ez daki txakurra zarenik”

(Peter Steiner, The New Yorkerreko bineta, 1993)

Hogei urte baino gehiago pasa dira irudi honetatik. Azken hogei urte hauetan gizartea asko aldatu da eta Informazio eta Komunikaziorako Teknologia (IKT) era izugarrian garatu dira. Hala ere, hainbat iritzi irakurrita orain dela hogei urteko perspektiba bera mantentzen dela ematen du: “Interneten inork ez dakit txakurra zarenik”. Baina atzerritik datorren oihartzuna errepikatu beharrean, hausnartu eta euskal gizartearen gaur egungo errealitatera ekarri beharra dago esaldi hau.

Azterketarekin aurrera jarraitu baino lehen, berandu izan baino lehen, parentesi txiki bat egin beharra dago: Internet ez da gauza bat eta bakarra. Modu ezberdinetan ulertzen eta erabiltzen dira Interneten dauden plataforma ezberdinak eta, horregatik, Internetez modu homogeneo zein koherente batean hitz egiteak honen azterketa ukatzen du. Adin, genero edota Herriaren arabera sozialki moldatutako interes eta gustu (Bourdieu, 1988) ezberdinak daudenez, Interneten erabiliko diren online sare sozialak (ikerketan parte hartu zuten gazteen iritziz, Tuenti online sare soziala utzi eta Facebook sortzeko arrazoi nagusia adina zen: gaztetxo izatetik, gazte izaterako iragate erritu moduan ulertzen zuten) edota egunkarien online bertsioak (batzuk El Correon sartuko dira, beste batzuk Naizeko online edukiatatik ordainduko dute eta beste batzuk ez dira inoiz egunkarien online bertsioetan sartuko) edota email kontuak (lan-kide batek, pertsona baten adina jakiteko pista argia dela esaten du: helduenetik gazteenera, Euskaltel, Yahoo, Hotmail, Gmail eta zuzenean email konturik ez izatea) ezberdinak izango dira.

1993. urtean, Internetera konektatzeko modu bakarra ordenagailua zen, baina gaur egun batez ere telefono mugikorrak dira Interneten konektatuta mantentzen duten gailuak. “Konektatzeko” eta “konektatuta mantendu” ez dira hitz hutsak: lehengoak sartu eta ateratzeko aukera ematen du, bigarrenak, ordea, gizartea bertan bizi dela adierazten du. Azken hau indarra hartzen doan ideia da, izan ere, Daniel Milleren (2011) iritziz gaur egun ez da posible Internetetik ateratzea: mugarik ez duen horretatik ezin da atera eta ordenagailua amatatu arren, erabiltzailea ez da online sare sozialetik ateratzen. Identitatearen aspektu erlazionala gogoratuz, adibidez, baimena eskatu gabe Facebookeko horman identitatea eraiki dezakete norberaren lagunek norbera agertzen den argazkia publiko eginez. Edo beste adibide ohikoago bat, telefono mugikorrera etengabe heltzen diren Whatsapp mezuek Interneten etengabe konektatuta zaudela eta espazio horretan ere bizi zarela gogorazten dizute. Ezin da ahaztu: Internet ez da medio bat bakarrik, espazio bat ere bada. Aurrez-aurre ez bada ere beste pertsona batzuekin partekatzen



den espazioa da eta materialki ez bada ere, edukiak uzteko espazio bat da. Doktorego Tesian parte hartu zuten gazteek, atzerrian egoteagatik eta ordutegi diferentzia zela medio, lagunekin hitz egiteko aukera ez zuten hauekin komunikatzeko modu bakarra argazkiak haien Facebookeko horman jartzea zen, hurrengo egunean haien senide zein lagunek ikus zezaten eta komentario bat egin zezaten.

1993. urtean ere, Interneteko plataforma erabilienetarikoa chata zen. Modu anonimoan idatziz komunikatzeko aukera ematen zuten chat hauek “alter ego” bat sortzeko erabiltzen ziren (Mayans, 2009). Testuinguru horretan zentzua zuen aipatu bineta: inork ezin zuen jakin mutila - neska, itsusia - oso itsusia edo euskal herritarra – Franco zale amorratua ote zinen. Internetekoa identitatea faltua zela esan zen garai horretan. Gaur egun, ordea, Gemma San Corneliok “*estudios recientes han demostrado que la identidad que construimos online, en contra del paradigma Postmoderno, ni es (del todo) inventada ni es tan múltiple como parecía, y sobre todo es poco anónima*” (2008: 20) baieztatzen du. Alegia, gaur egun harreman sozialen gotorleku diren online sare sozialak ez dira bat ere anonimoak ez eta “alter egoak” sortzeko tresna egokia: are gehiago, egoa elikatzeko balio dutela esaten da maiz, “super ego” bat sortzeko, hain zuzen ere. Nola edo hala, online sare sozialetan aurrez-aurreko harremanetan bezala (“bizitza erreal” kontzeptua erabiltzea ez da egokia: Interneteko bizitza oso erreal baita, ondorio errealak dituelako bizitzan), itxura apaindu daiteke, hainbat gaie-taz hitz egin daiteke edo ez, iritziak eta jarrerak ezkutatu, lausotu edo indartu... baina horrek ez du esan nahi inor anonimoa denik eta are gutxiago inor txakurra denik.

1993. urtean, nola ez, “teknologia berriak” kontzeptua erabiltzen zen. Internetek muturreko aldaketak eragin zituen gizartean, baina, “berria” atzizkia dimentsio ekonomiko batekin zer ikusi handiagoa du akademikoarekin baino. Alegia, berria den oro erosi beharra dago, ezin atzean geratu: teknologia berri bat ateratzen da oso denbora gutxian eta denak erosi behar dira. Geldi. Pentsa dezagun. Perspektiba historikoa izan dezagun. Ez dezagun pentsa gizateriaren gorenean gaudela eta Amerika deskubrituko dugula. Teknologia berriak? Eta ze teknologia ez da berria izan bere garairako? Telefonoa ez al zen teknologia berri bat orduko gizarterako? Sua ez al zen teknologia berria? Ondo pentsatuta, akats larria da “teknologia berriak” kontzeptua erabiltzea, ez baitu teknologia horren inguruko detailerik ematen.

1993. urtean ume edo gazte ziren pertsonak omen dira natibo digitalak. Aurreko arrazoi bera aplikatu daiteke hemen: zaharra izatea txarto ikusita dago gizarte honetan, gaztetasuna erosi behar da bai kremen bidez eta bai azken “teknologia berria” erosiz. Natiboa berez lurralde horretan zeudenak dira, kasu honetan, adinez zaharrak direnak. Pertsona hauek dira Interneten bilakaera eta egonkortzea ikusi eta bizitu dutenak. Gazteak teknologia hauekin hazi egin dira eta, beraz, ulertzekoa da txikitatik erabili izan dutelako teknologia hauek menperatzea, baina honek ez ditu natibo bilakatzen. Izatekotan, natiboen bigarren edo hirugarren belaunaldia izango dira.

Ikerketak egoera berri baten aurrean galderak sortzea eskatzen du, ez erantzun arinak ematea. Euskal akademian asko dago Interneten inguruan ikertzeko,

hainbat kontzeptu sakon aztertu, kuestionatu eta euskal gizartean kokatu behar dira. Hau egin ezean, ezin baita kontzeptu bakoitzaren potentzialtasuna probestu eta, ondorioz, ezin da herri moduan aurrera egin. Interneten garrantzia ikusi dute beste gobernu eta unibertsitate askok eta Euskal Herrian ere bide bera jarraitu beharko litzateke. Betiere, unean-unekeo paradigma eta binetekin, noski.

“Gogoratzen al zara Interneten txakurra zinela inork ez zekienean?”

(Kaamran Hafeez, 2015)

## 4.2. Euskal identitatearen eraikuntza Facebooken

Facebook, eta oro har, online sare sozialei dagokionean ere atzerriko oihartzuna aplikatu da inongo hausnarketa gabe. Gaztelerako “redes sociales” edo ingelesezko “social media” kontzeptuak euskaratu eta “sare sozialak” kontzeptua erabili dira, modu oker batean. Badirudi Internetek errealitate berri bat sortu duela, baina ez da horrela: aurretiaz zegoen errealitatearekin nahastu da. Euskal gizartean bazeuden sare sozialak Internet agertu eta egonkortu aurretik zein Facebook enpresa pribatua sortu aurretik. Zer dira bestela koadrilak? Lagun artean dagoen harreman mota zein kolektibitate eredu hau sare sozial argia da: galdetu gabe jakina da koadrila non egongo den eta kide bakoitzak zer egingo duen. Koadrila eredu aldazten doan arren (Díaz, 2009), online sare sozialak aurretiaz ezagunak ziren sare sozialekin korapilatu dira.

Facebookek (eta, orokorrean, online sare sozialek) distantzian urrun egonda aurrez-aurreko harremanak jarraitzeko aukera ematen du. Baina ez soilik hori, harreman hauek modu jakin batean izateko joera inposatu egiten dute ere. Teknologiak neutroak bailiran tratatzen dira baina hauek badute arkitektura bat (Piscitelli, 2005): etxeak bezala, kaleak bezala, plazak bezala arkitektura honek modu batean edo bestean egotera eta egitera baldintzatzen du. Ezin da ahaztu Facebook gazte batek sortutako enpresa pribatu bat dela eta kontua sortzeko kontratu bat sinatu behar dela “onartu” klikatuz.

Enpresa honek ematen duen aukera nagusia hipertestu (Campas, 2007) bidez, hau da, idatziz, argazkiz, bideoz zien talde adskripzioz lagunekin, zehatzago izanda, Facebookeko lagunekin komunikatzea da. Hau baita beste aldaketa bat, lagunak ulertzeko modua. Lankideak, ezagunak, senideak, bikote-kideak (ohiak ere, noski), bidaia batean ezagututako eta ahaztu nahiko zenukeen pertsona hori, denak, lagunak dira. Noski, sistema ez da traketsa eta badaki berdintze horrek egoera ez erosoak sor ditzakeela eta, horregatik, pertsona bakoitzarekin partekatzen dena filtratzeko aukera ematen du: asteburu gauetako argazkiak soilik lagun batzuekin partekatu edo familiako argazkiak soilik kide hauekin partekatzeko aukera dago. Internet bat eta bakarra ez dagoen moduan, Facebook bat eta bakarra ere ez dago. Clara Ciuffoli eta Guadalupe Lópezek (2012) “personalizado compartido” kontzeptua sortu zuten egoera hau azaltzeko: sistema komun baten mugen baitan, pertsona bakoitzak bere profila eta partekatzen duena nahieran diseinatzeko aukera du, intimoa dena, pribatua dena eta publikoa dena banatuz. Aukera honek, identitatearen eraikuntzan eragin zuzena du, eta noski, euskal identitatearen eraikuntzan ere.

#### 4.2.1. Internet, euskal identitatearen eraikuntza sozialerako espazio pribilegiatua baina ez askea

Azpi-izenburu hau kontradikzio hutsa dela irudi lezake. Horrela bada, hasieran aipatu testuingurua gogoratu beharra dago: gaur egun gizarteak ezin dira dikotomien bidez ulertu, ezin dira bai–ez, zuria–beltza, edota ona–txarra logiken arabera ulertu. Konplexutasuna da nagusi Modernitate osteko gizarte hauetan eta Interneten egonkortzeak, konplexutasun hau indartu besterik ez du egin. Galdera klasikoa da, “Internetek askatzen gaitu edo preso egiten gaitu?”. Klasikoa izanik, alegia, akademia mundutik erantzun bat eman zitzaion duela hamarkada batzuk, gizarte zientzietan ere klasikoa den erantzun batekin: segun, ez bata eta ez bestea. Erantzun honetara heldu arte, hainbat Guruek teknofobia eta teknofilia aldarrikatu zuten 90. hamarkadan zehar: Paul Viriliok (1997) Internetek mundua homogeneo bilakatu zuela aldarrikatu zuen eta, ia urte berean, Nicolás Negopontek (1995) ideia zaharrak apurtu eta garai berriak ekarriko zituela baieztatu zuen.

Hogei urte beranduago bi muturreko ikuspegi hauek mantentzen diren arren, alde bateko zein besteko ikuspegitik kontrako ikuspegi ere onartzen dituzten ekarpenak indarra hartzen doaz. Azpimarratzekoa da William Duttonen (2009) proposamena zeinetan Internet “Bosgarren botere faktikoa” bezala definitzen duen: gizarteak badu espazio bat beste logika batzuen arabera politika, ekonomia edota kultura arloko proposamenak aurrera eramateko. Oxfordeko irakasle honek, noski, ez du ahazten Interneten enpresa pribatuek zein estatuek duten indarra eta, horregatik, espazio honetaz hitz egiteko “askatasuna” hitza erabili beharrean, “pribilegiatua” kontzeptua erabiltzen du.

1993. urtean, “identitate faltsu” bat sortuz Interneten edonor izateko aukera zegoen. Ideia honen garapena, Internet espazio askea dela izan da: edozer gauza egiteko aukera dagoen espazioa. Berrito ere natiboen ideia berreskuratuz, Amerika bezala, Internet aukeren eta askatasunen espazio bezala ulertzen zuten askok. Gaur egun, ordea, askatasuna ezbaian jarri beharra dago. Enpresa pribatuen nagusitasuna geroz eta argiagoa da, baina ustez frontierarik gabeko mundu honetan zeinetan “munduko biztanleak” daudela esatea modan dagoen eta XXI. mendeko mundu globalizatuan estatu berriak sortzeko proposamenak zahartzat jotzen diren, estatuek Interneten duten indarra agian ez da hain nabaria. Àlvar Perisen hitzak aipatu behar dira berriro ere: “*los estados nación todavía ejercen una capacidad de control mayor sobre las nuevas tecnologías de lo que a muchos les gustaría*” (2010: 229). Autoreak garrantzi berezia ematen dio estatuek erabiltzen duten bi digituen bukaerei (“.es” edo “.fr”), hauek, identitatea eraikitzekeo tresna sinboliko bilakatzen direla iradokiz. Horregatik, estatu propiorik ezean, azpimarratzekoa da “.eus” ekimenak euskal gizarte, kultura eta hizkuntza Interneten ikusgarri izan dadin egiten duen lana.

Horregatik, Internet kanpoko gizarte-harremanetan ere ematen ez den askatasunaren ideia alde batera utziz, Internet euskal identitatea eraikitzekeo espazio pribilegiatua dela esan daiteke. Gazteek ikerketan zehar azaldu bezala, online sare sozialetan eroso sentitzen dira eta kalean bezala behatuak sentitzen diren arren, espazio hauetan euren identitatea eraikitzekeo espazio pribilegiatua aurkitzen dute. Aurretiaz landutako Alfonso Pérez-Agoteren (1984) eta Iñaki Martínez

de Albénizen (2003:253) lanak gogoratuz, gazteek espazio publikoa erakundeek monopolizatuta, okupatuta eta arautua dagoela aurkitu dute eta, horregatik, online sare sozialetako espazio pribatuetan (enpresen jabetza diren heinean) egoteko, egiteko eta euskal identitatea dimentsio sozial batetik eraikitzeo aukera aurkitu dute.

Azaldutako aurreko garaiekin alderatuz, Franko garaian bezala gaur egun ere espazio pribatuak dira euskal identitatea eraikitzeo espazio eta tresna pribilegiatuak. Baina online sare sozialak euskal identitatea eraikitzeo espazio pribilegiatuak direla esateak ez du esan nahi, aurreko garai horretan bezala, espazio seguruak direnik. Franko garaian, etxea zen euskal identitatea eraikitzeo lagunez osatutako eta kaleko kontrol sozialetik ihes egiteko espazio pribatua, pribilegiatua eta segurua. Facebookek lagunez betetako espazio pribilegiatua eta euskal identitatea eraikitzeo tresna gehiago eskaintzen dizkio gaur egungo gazteari, baina ez ordea espazio seguru bat: online etxe horretan estatu espainolaren eta frantsesaren zein enpresa pribatuen begiradak baitaude. Honengatik guztiagatik, kontraesanak kontraesan eta konplexutasuna ulertzeko asmoz, Internet euskal identitatea eraikitzeo espazio pribilegiatu ez segurua dela esan daiteke.

#### **4.2.2. Herri digitala: mugez gaindiko euskal komunitate eredu anitza eta lausoa**

“Aberria. Zer da aberria?  
Milaka kilometrotara dagoen lur puska? Hiru milioiko jendartea?  
Lur zati batean bizi diren pertsonak?”

(Mikel Antza, Atzerri)

Erramun Baxoken (2007) lan-ildoarekin bat eginez, ikerketa honetan parte hartu zuten gazteek online sare sozialetan euskal identitatea eraikitzeo erreferente politikoak baino, erreferente sozialak maneiatzen dituztela argi geratu zen. Nahiak berak azaltzen duen moduan:

Eta nik nire kasuan ez zait gustatzen fan egitea, adibidez, fan de “Bildu”, fan de “Euskal presoak”, fan de “EH”. Baina bai ikusten duzu jendea fan de “Bilbao”, fan de “Somera”.

(Nahia, 2011)

Gaur egungo Internet bidezko gazteen euskal identitatearen eraikuntza, beraz, ez du zertan zuzenean dimentsio politiko batekin zein abertzaletasunarekin lotuta egon behar. Aldaketa nabari bat sumatu daiteke, izan ere, euskal identitatearen eraikuntza gizartean barneratuta eta normalduta dagoen prozesua da. Aurretiaz azaldutako estatudun nazio identitateen kasuan bezala, euskal identitatearen eraikuntza ez da abertzaleen edo nazionalisten betebeharra, herritarrek berezkoz hartzen duten eta modu “naturalean” egiten dituzten praktikak eta diskurtsoak dira. Maila sozial batean, euskal identitateak zuen zentzu hegemoniko politikoa diluitzen doa eta, beraz, euskal herritarrak horixe bera dira, herritarrak: eskubideak dituzten herritarrak, beste herri batzuetako biztanleen maila berean haien nazio identitatea eraikitzeo eskubidea duten herritarrak.

Beste alde batetik, natural hitza kakotxen artean idatzi beharra dago, gizarte zientzietatik nekez esan daitekeelako zerbait naturala denik. Eragin historikoak eta estrukturalak jasotzen ditu euskal herritarrak bere egunerokotasunean, euskal identitatearen eraikuntzaren kasuan are argiagoak direnak. Estatuak eta hauen eraginpean dauden erakundeek dimentsio soziala erabat baldintzatzen dute eta, ondorioz, dimentsio sozial batetik euskal herritarrek estatudun herritarrek bezala nazio identitatea eraikitzeke aukera dutela esateak ez du esan nahi dimentsio politikoa eskubide berak dituztenik. Euskal estatu baten babesik gabe, euskal identitatea eraikitzerako orduan euskal gizarteak espainiar zein frantziar estatuen eragina du; are gehiago, zenbait kasutan kanpoko estatuak euskal identitatea eraikitzen dutela esan daiteke. Identitate kolektiboan azterketan ezohikoa den eraikuntza bat pairatzen da euskal identitatearen kasuan: “Haiek” bezala identifikatu daitekeen agente batek, “Gu”aren identitatea eraikitzen duela, hain zuzen ere.

Nazio identitate erreferenteak sozialak izateaz gain, edo agian sozialak dirrelako, gizartean euskal identitatea sentitzeko, ulertzeko eta eraikitzeke modu anitz daudela esan daiteke. Facebooken maneiatzen diren praktika, diskurtso eta erreferente aniztasun honek, beraz, aurretiaz Joxe Azurmendik (1992) proposatutako lan ildoarekin bat egiten du: ikerketak euskal komunitatea bat eta bakarra izan beharrean eta euskal gizarte nazio identitate erreferente baten arabera antolatu beharrean, euskal gizarte kolektibo anitz barnebiltzen dituen komunitatea dela frogatzen du.

Erabiltzaile batek hainbat taldeen kide bilakatzeko aukera duen aldetik, Facebooken kasuan ere aniztasun hau agerikoa izan da: klik huts bat eginez, euskal kultura, kirola, politika edota gastronomia “atsegiten” duten beste kide batzuekin komunitate bat osatzeko aukera dago. Honek, orain arte komunitatea ulertzeko zeuden eskemak birplanteatzea eskatzen du, izan ere, komunitatea ez da beste garai batzuetan bezala solidoa, itxia, koherentea eta bakarra. Gizarte, gizabana-koa zein honen erreflexibotasun maila eta erakundeen indarra aldatu den Modernitate osteko garai honetan, komunitatea bera ere aldatu da. Komunitate bat baino gehiagoko kide izateko aukera dago, are gehiago, elkarren artean kontraesankor-rrak (diruditen) komunitateen kide izateko aukera dago. Hauen kide bilakatzeko arrazoiak ez du zertan arrazionala edo morala izan behar, interes pertsonalek eta utilitaristek zer esan handia baitute. Komunitatea, gainera, ez da hain itxia ez sar-terako orduan ez eta hau uzterako orduan: Interneten kasuan, klik huts bat da komunitate baten kidea (ez) izateko egin beharreko iragate erritu bakarra.

Ondorioz, aurreko teoriekin bat eginez, batetik, Interneten inguruko azterketak euskal identitatea eraikitzerako orduan erreferente sozialek duten garrantzia eta, bestetik, komunitatearen kontzepzio lausoa eta anitza beharrezkoa dela esan daiteke. Internetek, ordea, nazio identitatearen eraikuntzari dagokionez badu elementu bat orain arteko egoera gainditzen duena: lurraldetasun eza. Nazio identitatea leku batean eraiki izan da gaur egun arte Estatu edo Nazio batzuen mugen baitan. Aurretiaz aipatutako Diasporaren inguruko ikerketek erakutsi zuten nazio identitatea Estatu edo Nazio horren mugetatik kanpo eraikitzeke aukera zegoela, baina betiere, beste Estatu edo Nazio batzuen mugen barruan: euskal identitatea Argentinan, Estatu Batuetan edota Ingalaterran eraiki da, euskal mugetatik kanpo baina beti beste Herri batzuen mugen baitan. Internetek, ordea, ez du leku bat

okupatzen eta, beraz, espazio horretan eraikitzen den identitatea eta espazio hori habitatzen duten biztanleak ez daude leku geografiko batean.

Leku geografiko batetatik konektatzen dira euskal herritarrak Internetera. Etnografia digitala burututako taldeko kideek azaldu bezala, konexioa segun eta nondik egiten den, Herrien arabera eragin estruktural eta kulturalen arabera, Interneten euskal identitatea eraikitzeke modua ezberdina izango da. Proposamen honekin, ez da esan nahi Internetek muga geografikoak ezabatu dituenik edota Internet garaian hauek garrantzirik ez dutenik: aurretiaz azaldu bezala, aspektu geografikoa eta administratiboak bere biziko garrantzia dute gaur egun; eta are gehiago bi estatuen lurretan banatuta dagoen Herri batentzat. Proposamen honen bidez, Interneten egiten den euskal identitatearen eraikuntza lekurik okupatzen ez duen dimentsio batean egiten dela esan nahi da, eta, noski, ezaugarri honek propio ez diren bi estatuen barnean dauden euskal herritar, gizarte zein herri moduan eskaintzen dituen aukera eta mugen inguruan hausnartu nahi da ere.

Maila teoriko batean, Interneten inguruko ikerlariek leku offlineak eta espazio onlineak aldi berean bizi direla defendatzen dute. Beste era batera esanda, hainbat autorek (Castells 1997, 2006, 2012; Gómez 2002) eguneroko bizitzan Internet bidezko gizarte harremanak eta aurrez-aurreko harremanak aldi berean bizi direla defendatzen dute. Bi dimentsioen uztarketa hori nazio identitateen kasura zein herrien kasura ekarriz, eta Joseba Kamiok izendatutako kontzeptu bat jarraituz, "Herri digitala" moduan uler daiteke. Hainbat teoriariren ekarpena euskal kasura ekarriz, gaur egungo euskal identitatea aurrez-aurre zein Internet bidez eraikitzen bada eta euskal gizarteak leku offlineak zein espazio onlineak aldi berean habitatzeko baditu, zilegi da pentsatzea Herriek ere bi dimentsiotan hedatzen direla: leku geografikoaren "mapa" batean eta espazio onlinearen "hodeia" batean.

Antropologian badago kontzeptu bat dimentsio materiala eta sinbolikoa uztartzen dituen dimentsioa izendatzeko: territoria (Allen 2011; Sassen 2000, 2006, 2008). Herri digitalak, beraz, barnebiltzen ditu aurrez-aurreko euskal identitatearen eraikuntzak zein Internet bidezkoak eta, batez ere, Herri batek dituen muga material edo administratiboak eta harreman sozialek zein identitate erreferenteek ezartzen dituzten muga sinbolikoak (Anderson 1993). "*Euskara da gure territorio libre bakarra*" esan zuen Joseba Sarrionandiak (2011), kartzelatik. Kontrolpeko leku geografiko batetatik espazio propioak sortzeko eta habitatzeko gaitasuna erakusten du esaldi honen bidez: errealitate materiala eta sinbolikoa uztartzea; aurretiaz bi gazte militanteek erakutsi bezala, propioak ez diren lekueetatik praktika, diskurtso eta espazio propioak sortzea; Facebook euskal identitatea eraikitzeke espazio pribilegiatua baina ez askea dela ulertzen lagundu dezakeena.

## 5. Ondorioak: "izango direlako gara" edo biharko erantzunak gaurko galderak

Interneten egonkortzearekin batera, Herri gisa sor ditzakegun territorio libre berriak berrasmatzeko beharrean gaude zentzu akademiko, politiko eta sozialean. Horregatik, lehenik eta behin, testuan zehar, euskal gizartearen subjektua gaur egungo testuinguru politiko, sozial eta akademikora egokituta da. "Euzkotar" ideia-

tik hasi eta “Euskaldunak” izenetik igaroz, gaur egungo euskal gizartearen subjektua “euskal herritarrak” dela proposatu da. Maila politikoa estatu propio bat ez izan arren, maila sozial eta akademikoan euskal gizartea estatudun Herrien parean jar daiteke eta jarri behar da: pertsona hauek eskubide guztiak izan beharko lituzketen herritarrak baitira.

Bigarrenik, eta aipatu ikuspegi humanoak eskatuta, euskal identitatea plano akademikotik aztertzerako orduan formulatu beharreko ikerketa-galdera kuestionatu behar izan da: euskaldunak euskara eta euskal identitateari egiten baitio erreferentzia baina euskal herritarrak genero, adin, lan edota arraza identitateei egiten die erreferentzia, besteak beste. Doktorego Tesian parte hartu zuten gazteek azaldu bezala, euskal identitatearen eraikuntza beste identitate batzuen eraikuntzarekin batera egiten da egungo gizartean. Ikuspegi honek, euskal identitatearen eraikuntza erreflexiboa izateaz gain, erlazionala eta testuinguruaren arabera ere badela proposatzeko bidea ireki du: “Nork – Nori – Non” hitz-jokoaren baitan laburtu den prozesua, hain zuzen ere.

Euskal herritarrok, beraz, hainbat identitate eraikitzen ditugu eguneroko bizitzan. Gure bizitzekin, gure gorputzekin eta gure ongi-izate ekonomiko eta sozialarekin lotutako hainbat erabaki hartzen ditugu. Edo hartu nahiko genituzke behintzat. “*Euskal herritar burujabeon aberria, euskal estatua da*” izendatu dut saiakera hau eta, euskal herritartasunaren eta euskal estatuaren garrantziaz hitz egin badut ere, burujabetasunaz gutxi aritu naiz. Agian oraindik gai honen inguruko ezagutza gutxi dagoelako eta, batez ere, Doktorego Tesian landu ez dudalako. Nola edo hala burujabetza, euskal herritarrok gure identitateak eraikitzeko aukera da; burujabetza euskal herritarrok gure bizitzan eragiten gaituzten hainbat erabakiren inguruan hitza hartzea da; burujabetza euskal herritarrok ekonomia, politika eta kultura arloetan esku-hartzeko eskubidea da; soberania, azken finean, demokrazia da.

Horregatik, euskal herritarrak bagaren arren, ez dugu erabakitzeko gaitasun hau. Zergatik? Euskal estatu bat ez dugulako. Ez, ez noa euskal gizartearen arazo politiko, ekonomiko, kultural zein sozialak bi hitz hauekin konpontzera. Bai, euskal estatuak beste arazo batzuk sortuko lituzke, maila akademiko, politiko zein sozialetik sufritzea plazer hutsa izango liratekeen arazoak. Ikerketan ikusitakoaren arabera, euskal estaturik gabe euskal identitatea, euskal gizartea, euskal komunitatea, euskal historia eta euskal herritarrok ehun urte barru bizirik jarraitzeko, *izaten* jarraitzeko (bai, esentziara jotzeko beharra ikusi dut) arazoak izango ditugula esan nahi dut: “*Euskal herritar burujabeon aberria, euskal estatua da*” esan nahi dut.

Akademiatik, arazoekiko distantzia bat izateko pribilegioa dugu irakurtzeko, pentsatzeko eta idazteko denborari esker. Eusko Jaurjaritzaren beka baten bidez egindako ikerketa bat den heinean, pribilegio hau euskal gizarteak emana da eta, horregatik ere, euskal gizartea entzuteko beharra dago akademian. Gizarteari hitza eman behar zaiola esaten da maiz, baina euskal herritarrok hitza hartzen dugu uneoro eta, gainera, Interneteko kasuan ikusi bezala, iritzia entzunda izan dadin propioak ez ditugun espazioak okupatzeko gai gara. Euskal gizarteari ez zaio hitza eman behar, euskal gizarteari belarria eman behar zaio, entzun behar zaio. Beraz, gizarte eta herri gisa bihar non egon nahi dugun erantzunez, sor ditzagun gaur helmuga horretara heltzeko bidea irekiko dituzten galderak.

## 6. Bibliografía

- ALLEN, John. Topological Twists Power's Shifting Geographies. *Dialogues in Human Geography* 1 (3), 2011; 283-298 or. Doi: 10.1177/2043820611421546.
- AMEZAGA, Josu. *Herri kultura: euskal kultura eta kultura popularrak*. Leioa: UPV-EHU zerbitzu editoriala, 1995.
- ANDERSON, Benedict. *Comunidades imaginadas: reflexiones sobre el origen y la difusión del nacionalismo*. México: Fondo de cultura económico, 1993.
- ANTZA, Mikel. *Ospitalekoak*. Zarautz: Susa, 2000.
- ARREGI, Joseba. "Los nacionalistas hemos fallado al no legitimar el Estatuto". In: *Diario Vasco*, Urriak 15 2000.
- BARANDIARAN, Jose Miguel. *Euskalerriko leen-gizona*, Obras completas (XI). Bilbo: La gran enciclopedia Vasca, 1974.
- BAXOK, Erramun (et al.). *Euskal nortasuna eta kultura XXI. mende hasieran*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2007.
- BILLIG, Michael. *Banal nationalism*. Londres: Sage, 1995.
- BOURDIEU, Pierre. *La distinction: criterios y bases sociales del gusto*. Madrid: Taurus, 1988.
- BUTLER, Judith. *Cuerpos que importan: sobre los límites materiales y discursivos del "sexo"*. Buenos Aires: Paidós, 2002.
- . *El género en disputa: el feminismo y la subversión de la identidad*, Bartzelona: Paidós, 2007.
- CAMPAS, Joan. *El Hipertexto*. Bartzelona: UOC argitalpen zerbitzua, 2007.
- CAMPIÓN, Arturo. *El idioma y la libertad de los pueblos*, Obras completas (XV). Iruñea: Mintzoa, 1985.
- CANO, Harkaitz. *Twist*. Zarautz: Susa, 2011.
- CASTELLS, Manuel. *La era de la información: economía, sociedad y cultura*. Madrid: Alianza, 1997.
- . *La sociedad red: una visión global*. Madrid: Alianza, 2006.
- . *Redes de indignación y esperanza: Los movimientos sociales en la era de Internet*. Madrid: Alianza, 2012.
- CEIC. *Hacia una nueva cultura de la identidad y la política: tendencias en la juventud vasca*. Donostia: Eusko Jaurlaritzaren argitalpen zerbitzua, 2005.
- CIUFFOLI, Clara eta LÓPEZ, Guadalupe. *Facebook es el mensaje*. Buenos Aires: ICRJ futuribles, 2012.
- CONVERSI, Daniele. *The Basques, the Catalans and Spain. Alternative routes to nationalist mobilisation*. Londres: Hurst and Company, 1997.
- DE CERTEAU, Michel. *La invención de lo cotidiano I. Artes de hacer*. Mexiko: Universidad Iberoamericana, 1996.
- DÍAZ, Koldo eta TSAVKKO, Raphael. "Transnacionalismo vasco e Internet: análisis del uso de blogs y Facebook en la Diáspora". *Revista Científica Guillermo de Ockham* 13(2), 2015b; 55-63 or.
- DÍAZ, Koldo. *La transformación de la cuadrilla como agente espacio regenerador de la identidad colectiva Euskaldun. El caso de la cuadrilla de jóvenes y el casco viejo de Bilbo*. 2009; Argitaratu gabea.
- . "Euskal identitatearen garapena online sare sozialen bidez: gazteen praktika sozialak Facebooken". *Gogoia aldizkaria* 11, 2011; 61-86 or.
- . "Faceguk: la construcción social de la identidad vasca analizada desde la etnografía digital". *Athenea digital* 15 (2), 2015b; 275-288 or.
- . *Faceguk: euskal identitatearen eraikuntza etnografía digital aztertua*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren argitalpen zerbitzua, 2015c; online bertsioa: <http://www.euskara.euskadi.eus/w10aTesDocWar/tesisDoctoralJSP/w10aConsultarTesisDoctoralLookUpDispath.do?clave=accionVer1099>
- DOUGLASS, William. *Cultura vasca y su diáspora: ensayos teóricos descriptivos*. Donostia: Baroja, 1990.



- . *Global Vasconia: essays on the Basque diaspora*. Reno: Center for Basque studies, 2006.
- DUTTON, William. "The fifth Estate emerging through the network of networks". *Prometheus* 27(1), 2009; 1-15 or.
- GATTI, Gabriel. *Identidades débiles: una propuesta teórica aplicada al estudio de la identidad en el País Vasco*. Madrid: CIS, 2007.
- GATTI, Gabriel eta MARTÍNEZ DE ALBÉNIZ, Iñaki. "La producción de la identidad en la sociedad del conocimiento. Cultura experta e identidad en el País Vasco". *Azkoaga* 13, 2006; 155-160 or.
- GÓMEZ, Edgar. "Espacio, Ciberespacio e Hiperespacio: Nuevas configuraciones para leer la Comunicación Mediada por Computadora". In: *Anuario de Investigación del CONEICC*, 2002; online bertsioa.
- GURRUCHUGA, Ander. *La refundación del nacionalismo vasco*. Leioa: UPV-EHU argitalpen zerbitzua, 1990.
- HALL, Stuart. *Significado, representación, ideología. Althusser y los debates postestructuralistas*. Bartzelona: Paidós, 1998.
- . "¿Quién necesita identidad?". In: *Cuestiones de identidad cultural*. Bartzelona: Amorrortu, 2003; 13-39.
- HINE, Christine. *Etnografía Virtual*. Bartzelona: UOC argitalpen zerbitzua, 2004.
- JAUREGIZURIA, Naroa. *Markagintza eta nazio-marka, Euskal Herrira hurbilpena*. Aretxabaleta: Mondragon Unibertsitatea, 2014; Komunikazioa erakundeetan aditu tituluko bukaerako lana argitaratu gabea.
- LACLAU, Ernesto. *La razón populista*. Mexiko: Fondo de culturaeconómica, 2005.
- LEONÉ, Santi. *Euskal Herri imaginario baten alde*. Donostia: Elkar, 2008.
- MARTÍNEZ DE ALBÉNIZ, Iñaki. *La poética de la política: usos de la política en el País vasco*. Leioa: UPV-EHU argitalpen zerbitzua, 2003.
- MAYANS, Joan. *Género chat. O como la etnografía puso un pie en el ciberespacio*. Bartzelona: Gedisa, 2009.
- MILLER, Daniel. *Tales from Facebook*. Erresuma Batua: Polity Press, 2011.
- NEGROPONTE, Nicolás. *El mundo digital*. Bartzelona: Ediciones B, 1995.
- OIARZABAL, Agustín eta OIARZABAL, Pedro. *La identidad vasca en el mundo: narrativas sobre identidad más allá de las fronteras*. Bilbao: Erroteta, 2005.
- PÉREZ-AGOTE, Alfonso. *La reproducción del nacionalismo. El caso vasco*. Madrid: CIS, 1984.
- PERIS, Àlvar. "Identidad nacional, televisión y vida diaria: perspectivas para un debate del caso español". *Asociación de historia contemporánea*, 2008; 1-20 or.
- . "Internet e identidad nacional: Estado, dominios y comunidades virtuales". *IC-Revista Científica de información y comunicación* 7, 2010; 221-253 or.
- PISCITELLI, Alejandro. *Internet, la imprenta del siglo XXI*. Bartzelona: Editorial Gedisa, 2005.
- SARRIONANDIA, Joseba. *Kartzelako poemak*. Zarautz: Susa, 2011.
- SASSEN, Saskia. "Territory and Territoriality in the Global Economy". *International Sociology* 15 (2), 2000; 372-93 or. Doi:10.1177/0268580900015002014.
- . *Territory, Authority, Rights: From Medieval to Global Assemblages*. Princeton and Oxford: Princeton University Press, 2006.
- . "Neither Global nor National: Novel Assemblages of Territory, Authority, and Rights". *Ethics and Global Politics* 1 (1-2), 2008; 61-79 or. Doi: 0.3402/egp.v1i1.1814
- TOTORICAGÜENA, Gloria eta URRUTIA, Iñigo (Eds.). *The legal status of the Basque language today: one language, three administrations, seven different geographies and a Diaspora*. Donostia: Eusko ikaskuntza, 2008.
- TOTORICAGÜENA, Gloria. "Shinking world, expanding Diaspora: globalization and Basque diasporic identity". In: *The Basque Diaspora: La Diáspora vasca*. Reno: University of Nevada, 1999; 284-300 or.
- . *Diáspora vasca comparada: etnicidad, cultura y política en las colectividades vascas*. Gasteiz: Servicio central de publicaciones del Gobierno Vasco, 2003.
- . *Identity, culture and politics in the Basque Diaspora*. Reno: University of Nevada press, 2004.

—. *Basque Diaspora: migration and transnational identity*. Reno: Center for Basque studies, 2005.

URLA, Jacqueline. *Being Basque, speaking Basque: the politics of language and identity in the Basque Country*. Michigan: UMMI Dissertation Information Services, 1989.

—. *Reclaiming Basque: language, nation and cultural activism*. Reno: University of Nevada press, 2012.

VIRILIO, Paul. *Cibermundo, la política de lo peor*. Madril: Cátedra, 1997.